

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

**TOKI-ERAKUNDEETAN
ezartzeko prozesuaren
eta ezarpenerako tresnen
azalpen-gida**


BERDINSAREA


EMAKUNDE
EMAKUNEAREN ELISKA ERANJUNDA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUDEL

Departamentu administratiboa
Departamentu Administrazioa del
EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

01

Sarrera

7. Orr.

02

**Nork du
GEE
egiteko
betebeharra?**

8. Orr.

03

**Lege-
betebeharra
baino
gehiago**

10. Orr.

04

**GEE:
Zer da?**

12. Orr.

05

**Noiz egin
behar da
GEE bat?**

14. Orr.

IZENBURUA

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida.

AUTOREAK

Honako udalen berdintasunerako pertsonal teknikoa: Elorrio, Galdakao, Ermua, Donostia, Uribe-Kostako Mankomunitatea. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea eta EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarte. Honako aholkularitzaren laguntzaz: Eraberria Gunea S.L.

KOEDITOREAK

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

La Central Badiola Estudio.

DESKRIBATZAILEAK

Berdintasuna, Genero inpaktuaren ebaluaketa, Gida.

ALE KOPURUA: 1.000 ale

DATA: 2018 maiatza

IMPRIMAKETA:

L.G.:

06

Nork egiten du GEE?

17. Orr.

07

Nola ezarri tresna hau toki-erakunde batean?

18. Orr.

08

Nola egin GEE bat

1. urratsa:

Egin behar al da arau edo administrazio-egintza honen GEE?

2. urratsa:

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa.

3. urratsa:

Berdintasun-alarreko organoaren oharrak eta iradokizunak

19. Orr.

09

Baliabideak

27. Orr.

10

Eranskinak

I. eranskina:

Konpromiso-eredua

II. eranskina:

Tresna: “Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharretik salbuetsita izatearen justifikazioa”.

III. eranskina:

Tresna: “Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa”.

28. Orr.

Aur

kez

pe

na

BERDINSAREA, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea, EUDEL eta Emakundek sustatua, berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka konpromiso sendoa duten udalek osatuta dago. BERDINSAREAREN xedea da toki administrazioetatik kudeatutako gizon eta emakumeen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako programa eta zerbitzuak sustatu, sendotu, koordinatu eta ebaluatzea, ekintza eta ebaluaziorako irizpide bateratuak definituz.

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarreak eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak, emakumeen eta gizonen berdintasunaren garapena bultzatzeko dugun konpromisoari eutsiz, tokiko gobernuetatik EAEko udalen zein beste toki-erakundeen eskura lanabes berria jarri dugu.

Araudia lantzea erakunde eta botere publikoen ardatzetako bat da. Izan ere, arauketak bizitzako esparru guztiei eta hainbat jarduera-eremuri eragiten die. Beraz, esku-hartze sakona beharrezkoa da era eraginkorrean toki-administrazioan **genero-ikuspegia** txertatzeko. Horren haritik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18. artikuluan, adierazten da EAEko administrazio publikoek arauak egiterakoan eta aplikatzerakoan oso gogoan izan behar dutela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburua; 19. artikulutik 21. artikulura, berriz, hori nola egin ezartzen da.

Testuinguru horretan, nahi genuke gidaliburu hau tresna baliagarria izatea, dagokien profesionali agindu horiek betetzen laguntzeko. Horretarako, **oinarrizko informazioa** ematen die, bai eta **proposamen** bat ere arauak generoaren arabera duten eragina aldeztetik nola ebaluatu jakiteko, eta desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak arauetan nola sartu azaltzeko.

Gida hau **Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarearen** baitan landu da hainbat udalen parte-hartze aktiboarekin, eta EUDEL eta Emakunderen laguntzarekin.

Bi urteko elkarlanaren ostean, lanabesa probatu eta ezarri egin da parte hartu duten udalerrietan. Oraingoan, zure eskura jartzen dugu gure toki-administrazioaren neurri diseinatutako gida, Euskadiko udalerrietan berdintasun-politikan aurrera egiten jarraitu ahal izan dezagun.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen honetan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztiei, bai halaber Eraberria Gunea S.L. aholkularitza-enpresari, prozesuan emandako laguntza teknikoagatik.

Imanol Landa
EUDEL-Euskadiko Udalen
Elkarteko elkarteburua

Izaskun Landaida
EMAKUNDE-Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria

01

Sarrera

Toki-administrazioek berdintasunaren printzipioa barneratu behar dute beren araugintza- eta administrazio-jardueran, hori agintzen baitu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak). Horretarako, **generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak** (hemendik aurrera, GEE) **egin behar dituzte**.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak adierazten duen moduan, **tresna bat da** generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa,

eta bere helburua da eman nahi diren arauak eta administrazio-egintzak aztertzea eta behatzea arau eta administrazio-egintza horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak handituko edo murriztuko ote dituzten, berdintasun-helburuak txertatzeko araugintzak eta administrazio-jardueretan.

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko, ex-ante edo aurretiazko ebaluazio bat egin behar da, emakumeen eta gizonen egoeran zer eragin izango dituen aurreikus ditzan ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak. Neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera ematen du azterketa horrek, baldin eta berdintasunaren gainean eragin kaltegarria izango duela hautematen baldin bada, araua edo administrazio-egintza indarrean jarri aurretik. Era berean, arauak edo egintzak berdintasunaren

gainean eragin onuragarria izango baldin badu, eragin hori indartzeko beste neurri batzuk hartzeko aukera ematen du aurretiazko ebaluazioak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Era-kundearteko Batzordeak lantalde tekniko bat sortu zuen, GEEren ezarpena sustatzeko toki-erakundeetan. Emakunde izan da lantalde-burua. Lantalde tekniko horretan parte hartu dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, EUDEL elkarteak, eta Bilboko, Donostiako, Elorrioko, Pasaiako eta Vitoria-Gasteizko udalek. Lantaldea, 2014 eta 2015 urteetan, prozedura bat diseinatzen aritu da, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak implementatzeko toki-erakundeetan. Eusko Jaurlaritzan eta beste erakunde batzuetan jadanik ezartzen ari diren irizpideak eta prozedurak izan dira lan horren abiapuntua.

Prozesua, Berdintasunerako berdintasuneko udal-teknikariekin egiaztatu da eta EAEko bi udaletan (Pasaian eta Vitoria-Gasteizen) probatu da diseinatutako prozedura. Gainera, 2016 eta 2017an esperientzia pilotuak garatu dira Uribe Kostako mankomunitatean, eta Donostiako, Elorrioko, Ermuko eta Galdakaoko udaletan berriazko lan saioen bidez, eta egiaztatze prozesuak abiaraziz berdintasun teknikariekin. Hausnartzeko eta aztertze prozedura horren ondorioz, toki-erakundeen egoerara egokitutako irizpide batzuk zehaztu dira.

Toki-erakundeetan arauen eta administrazio-egintzen GEE egin behar duten pertsonen laguntzeko materiala da **diseinatutako prozeduraren azalpen gida hau**.

02

Nork du GEE egiteko betebeharra?

Toki-administrazio guztiek al dute ematen dituzten arauen eta administrazio-egintzen GEE egiteko betebeharra?

Bai, guztiek.

Hori arautzen du, hain justu, *otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak*, 18-22 artikuluetan, eta betebehar hori garatzen du *EAEko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako VI. Planak*, emakumeen eta gizonen berdintasunerako gobernantzaren kapituluko G8 neurrian, helburu zehatzak eta neurgarriak ezartzen dituen aldetik.

4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 18KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA.

18. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, dirulaguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.

2. Artikulu honetako lehen paragrafoan xedatutakoa betetzeko, euskal herri-administrazioen mende dauden sail, erakunde autonomo edo ente publikoek lege honetako 19. artikulutik 22.era bitartean ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, **foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenez baliatuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikuluetan ezarritakoa erakundeek dauzkaten antolakuntza- eta eginkizun-beharretara egokitu ahal izango dute.**(...)

19. artikulua. Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea.

1. Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori **sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina**. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondorio positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

(...)

20. artikulua. Ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak.

1. Eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, administrazio-arau edo -egintzaren proiektuan neurriak sartuko dira, emakumeek eta gizonen kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran neurriok izan dezaketen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko, antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeko eta sexu-berdintasuna sustatzeko.

(...)

EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

VI PLANA

G8.

Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea:

G8.1

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiten dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea.

G8.2

Generoaren araberako eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea.

G8.3

Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.

03

3. Lege-betebeharra baino gehiago

Zergatik berrikusi behar dira genero-ikuspegitik arauak eta administrazio-egintzak?

“ Sexistak ez diruditen erabaki politikoek eragin desberdina izan dezakete emakumeengan eta gizonengan, ondorio hori aurreikusi gabe eta nahi izan gabe ere. ”

*Generoaren araberako
Eragina Ebaluatzeko Gida.
Europako Batzordea. 1997.*

Arauak eta administrazio-egintzak genero-erikiko neutroak direla pentsatzen da oro har, herritar guztiak edo herritarren multzo bat baitute xede, emakumeen eta gizonen arteko bereizketarik egin gabe.

Alabaina, aintzat hartu behar da beti **zer desberdintasun dagoen, maila guztietan, emakumeen eta gizonen artean**, abiapuntuko egoera horrek **desberdintasun-egoeran** jartzen baititu batak zein besteak. Gizarte-esparru ugarian diren genero-desberdintasunei erreparatzen ez baldin bazaie, emango den arauak edo administrazio-egintzak ez du eragin bera izango emakumeengan eta gizonengan, eta eutsi egingo die, eta zenbaitetan, handitu egingo ditu egun diren desberdintasunak. Desberdintasun-egoeran dagoenari berdintasunezko tratua emateak ez dakar berdintasunik; aitzitik, iraunarazi edo handitu egiten du hura.

Genero-desberdintasunak egiturazkoak direnez, desberdintasuna betikotu egingo da, baldin eta egoera hori kontuan izan gabe eratzten eta antolatzen baldin badira erakunde eta politika publikoak. **Hori horrela, politika publikoa berrantolatu behar da egoera hori konpontze bidean jartzeko, hau da, arauak eta administrazio-egintzak egiteko prozesua aldatu behar da, desberdintasun-egoerak daudela kontuan hartzeko prozesu horretan.**

GEEren helburua da bistaratzea politika publikoak antolatzeko erabiltzen diren arauak ez direla neutroak generoaren

ikuspegitik, eta eragin desberdina izan dezaketela emakumeen eta gizonen egoeran, ondorio edo eragin hori aurreikusi gabea edo nahigabekoa izan arren.

Horrela jokatuta, posible izango da arauetan eta administrazio-egintzetan esku hartzea, eta, ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko izan ditzaketen eragin kaltegarriak zuzentzea eta eragin onuragarriak indartzea. Emakumeek gizartean bizi duten desberdintasunezko egoerak dakartzan beharizan eta interes berariazkoak aintzat hartzen dituzten neurrian, handitu egingo da arauen efikazia, eta egokiago erantzungo diote Administrazio ororen azken xedeari, hau da, bere herritar guztien beharizanak asetzeko helburuari.



ADIBIDEA

Udalerriko argi-kontaminazioa murrizteko helburua hartuta, argizatutako eremuak eta argiztapen-orduak murrizteko arau bat emateko asmoa baldin badu toki-administrazio batek, eta arau hori emateko prozesuan ez baldin badu generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluaziorik egiten, litekeena da ez identifikatzea emakumeek eta gizonen espazio publikoen erabilera desberdina egiten dutela: ordutegiak, lekuak, garraioak, arrazoiak..., ezta aldeak daudela segurtasunean, segurtasunaren gaineko pertzepzioan, etab. Horrenbestez, doikuntzak egiten edo konpentsazio-neurriak hartzen ez baldin badira, arauak eragin kaltegarriak izan ditzake egoera horien gainean.

04

GEE: zer da?

Zertan datza tresna hau?

Generoaren araberako eragina aurrez ebaluatzea 4/2005 Legeak aurreikusitako tresna bat da, eta araudi- eta administrazio-jardueran berdintasun-helburuak txertatzen laguntzea du helburu, arauetan edo administrazio-ekintzetan proiektatutako jarduera aztertuz, eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak areagotzeko edo gutxitzeko ekarpenak eginez.

Hausnarketa bat eskatzen du -ex ante ebaluaketaren bidezkoa-, arau edo administrazio-ekintza baten diseinuan horrek emakumeen eta gizonen egoerarengan zer eragin izango duen aintzartuz. Analisi horri esker, neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira, baldin eta berdintasunaren gaineko eragin negatiboa antzematen bada, araua edo administrazio-ekintza indarrean jarri aurretik.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

GENERO-MAINSTREAMINGEKO TRESNA

Egiazko berdintasunerako bidean aurrera egiteko formula nagusietako bat da, gaur egun, genero-mainstreaminga. Estrategia horren helburua da genero-ikuspegitik berrikustea jarduera publiko guztiak, genero-desberdintasunik ez handitu edo betikotzeko.

4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honela deskribatzen du genero-ikuspegiaren integrazioa 3.4. artikuluan: *emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.*

Genero-mainstreaminga bideragarria izango baldin bada, estrategia hori gauzatzeko tresnak behar dira. Aztertzeko, antolatzeko eta parte hartzeko tresnak.

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa azterketa-tresna bat da, desberdintasunak behatzen eta desberdintasun horiei aurre egiteko moduak bilatzen laguntzen duena; beraz, erabaki informatuak hartzen laguntzen du.

GENEROAREN ARABERAKO AZTERKETA

Tresna honek genero-azterketa barneratzen du araua edo administrazio-egintza diseinatzeko prozesuan; hori horrela, arauaren edo egintzaren jardun-eremuan dauden genero-desberdintasunak identifikatzen ditu. Berariaz aztertzen ditu **emakumeek eta gizonen baliabideetarako sarbidean eta haien kontrolean duten presentzia, erabakiak hartzean duten partaidetza, eta gizarte-arauen eta balioen eragina.**

Arauen eta administrazio-egintzen hartzaile izango diren pertsonen egoeraren gaineko informazio funtsezkoa ematen die arau eta egintza horiek eman behar dituztenei.

EX-ANTE EDO AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Tresna honen ezaugarri nabarmenetako bat da arau eta administrazio-egintzen aurretiazko edo ex-ante izaerako analisi edo azterketa bat egin beharra dakarrela, eta azterketa hori egin ondoren, **arau eta egintzek emakumeen eta gizonen egoeran izan ditzaketen ondorioak aurreikusten dituela.**

Hori horrela, onartu aurretik balora daiteke eman asmo den arauak edo administrazio-egintzak ondorio onuragarriak edo kaltegarriak izango ote dituen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko, eta berdintasuna sustatuko ote duen haren eraginpeko ingurune sozialean.

ARAU LANTZEA, BERE ERAGINA HOBETZEKO

Aurretiazko azterketa hori eginda, araua landu daiteke, eta aldaketak eta neurri zuzentzaileak barnera daitezke, bai izan dezakeen eragin kaltegarria zuzentzeko, bai, kasuan kasu, izan dezakeen eragin onuragarria indartzeko.

Araua lantzea da GEEren asmoa, **araututako eremuan gizonen eta emakumeen artean gertatzen diren desberdintasun-egoerei aurre egin eta egoera horiek eraldatzeko.** Bere helburua da, era berean, arauak eta egintzek eragin handiagoa eta berdintasun handiagokoa izatea, eta, ondorioz, horien efikazia handitzea.

05

Noiz egin behar da GEE bat?

GEE bat egin behar al zaie arau eta administrazio-egintza guztiei?

Arau juridikoei begiratuta, proposatzen da GEE bat egitea **tokiko arauen (ordenantzen, araudien, aurrekontuen eta hirigintza-arauen) proiektu guztiei**⁽¹⁾.

Hemen aurkezten den prozedurari dagokionez, *salbuetsi egiten dira* arau-proiektu hauek:

A Funtsean antolaketa-izaera duten arau-proiektuak.

Zehazki:

- Egitura organiko eta funtzionaleko dekretuak.
- Kontsulta, aholkularitza, ikerketa eta koordinazioko organoen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten proiektuak, baldin eta administrazio publikoetako langileek soilik osatutakoak baldin badira.
- Administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzeko proiektuak.

Dena dela, proiektu horiez gain, salbuetsirik izan daitezke, era berean, antolamendu izaera duten beste arau eta administrazio-egintzen proiektu batzuk ere. Salbuetsita dauden zehazteko, erabakigarria da bermatzea **proiektuak ez duela arautzen herritarren parte-hartzerik administrazioaren eginkizunetan.**



ADIBIDEA

Salbuetsita dagoela uler daiteke, funtsean antolamendu-izaera duelako, udal-administrazioaren egitura organikoa ezarri eta udal-erakunde publikoak atxikitzen dituen alkatetza-dekretu bat.

B

Indarrean dauden arauak bat egitea helburu duten arau-proiektuak

Arau horiek salbuetsita daude, ez dakartelako berritasunik araubidera.



ADIBIDEA

Zergen eta prezio publikoen gaineko ordenantzen testu bategina onartzeko arau-proiektu bat.

⁽¹⁾ Haren izaera bereziagatik, beharbada aurrekontu- eta hirigintza-arauen kasuan komenigarria izan liteke aurreikusitako tresnara egokitzapenen bat egitea, hartara GEEak egin daitezten. Era berean, ez da baztertzeko gerora begira ad hoc metodologia bat proposatzea.

C Indarrean diren arauak aldatzea helburu duten arau-proiektuak.

GEE egitetik salbuetsita daude jada indarrean diren beste arau batzuk aldatzeko asmoa duten proiektuak, salbu eta aldaketa horrek eragin nabarmena edo funtsezkoa izango baldin badu emakumeen eta gizonen egoeran. Ildo horretan, arau-aldaketa bat funtsezkotzat jo daiteke, genero-eraginaren ikuspegitik, baldin eta eragin erabakigarria baldin badu emakumeen eta gizonen egoeran eta/edo herritarren eskubide eta interes legitimoetan.



ADIBIDEA

GEE egitetik salbuetsita legoke, esaterako, udalerrian animalien edukitza eta babesa arautuko dituen udal-ordenantza, baina GEE egin beharko luke, adibidez, etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen udal-araudiaren funtsezko alderdiak aldatu asmo dituen arau-proiektuak.

D Genero-ikuspegi adierazgarriak gabeko proiektuak

Arau guztiek izan dezakete eragin ezberdina emakumeengan eta gizonengan, nahiz eta, 3. puntuaz azaldu dugun moduan, eragin hori aurretik aurreikusi gabea eta horretarako borondaterik gabekoa izan.

Hala ere, arauak ez du generoko adierazgarritasun edo funtsik izango, baldin eta ez badu zuzeneko edo zeharkako eraginik pertsonengan, edo, eraginik izanda ere, honako egoera hauetan inolako eraginik izan ez baldin badu edo oso eragin mugatua baldin badu: emakumeek eta gizonen ekonomia- eta gizarte-baliabideak eskuratzeko dituzten aukeretan, emakumeek eta gizonen erabakiguneetan duten partaidetzan, eta genero-desorekak sortzen eta iraunarazten dituzten gizarte-arauetan eta balioetan.



ADIBIDEA

Udalaren web-orria .com domeinutik .eus domeinura aldatzea arautu asmo duen arau-proiektua GEE egitetik salbuetsita dagoela uler daiteke, eragin urria izango duelako emakumeen eta gizonen egoeran.

Administrazio-egintzei begiratuta, enplegu publikoaren eskaintza publikoen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei soilik egin behar zaie GEE.

Berariaz, GEE izatetik **salbuetsita** daude egitasmo hauek:

- Planak, programak edo politika publikoak adierazteko beste tresna batzuk.
- Edozein laguntza publiko (diru-laguntzak, bekak, sariak...) emateko deialdiak, baldin eta, jarraibide horien ondorioetarako, ez badira arau-xedapen orokortzat hartzen, irauteko asmorik ez dutelako, eta denbora-epe batean berez amaitzen direlako.
- Zerbitzu-eginkizunak eta lanpostuen balorazio-prozesuak ebazteko egintzak.



ADIBIDEA

GEE egingo zaio gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko proiektuak eta jarduerak egiten dituzten elkarteentzako diru-laguntzak oro har eta denbora mugagaberako arautuko dituen ordenantzari, baina GEE egitetik salbuetsita izango dira urtero, ordenantza horretan oinarrituta, egingo diren deialdiak.

Azkenik, adierazi behar da badirela, izan,

GEErik egin beharrik ez duten bestelako arauak eta beste administrazio-jarduera batzuk, baina horrek ez du esan nahi arau eta jarduera horien egile, erabakitzaile edo betearazle diren pertsonak ez dutenik politika guztietan desberdintasunak desagerrarazteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak barneratzeko betebeharririk,

betebehar hori dutela arautzen baitu *otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak*, 3.4 eta 18.1. artikuluetan. Egoera horiek gertatzen direnean, organo arduradunen egitekoa izango da agindua betetzeko formula egokiena hautatzea; horrez gainera, jarraibide hauek erreferentzia gisa erabil ditzakete, baldin eta analogiarik baldin badago alderdiren batean.

Beti ziurtatu behar da arauaren edo egintzaren testuak ez duela hizkuntzaren erabilera sexistarik egiten, datuak sexuaren arabera banakatuta biltzeko neurriak barneratzeko aukera baloratu behar da, eta, besteak beste, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatu behar da aholkularitza-organoetan, epaimahaietan, partaidetza-prozesuetan eta bestelako organoetan.

06

Nork egiten du GEE?

Nori dagokio GEE egitea?

Lehen aipatutako 4/2005 legearen 19. artikulua arabera, arauaren edo administrazio-egintzaren organo bultzatzaileari dagokio GEE egitea, hau da, arauaren edo administrazio-egintzaren proposamena egiteko eskumena duenari. Organo horrek du arautu nahi den gaiaren gaineko jakintzarik handiena.

Esate baterako, Ingurumenaren gaineko eskumena duen arloak bultzatutako araua baldin bada, sail horrek izango du GEE egiteko erantzukizuna.

Hala ere, tresna horren bidez lortuko den emaitza optimizatzeko xedea hartuta, prozedura honek proposatzen du **toki-administrazioko berdintasun-arloak** laguntza emango diola organo bultzatzaileari; hau da, berdintasunaren alorreko jakintza berriaren berri emango du arautu nahi den alorrean, eta zenbait tresna berriak jarriko ditu eskura, hala nola genero-analisia eta generoko adierazgarritasunaren edo genero-eraginaren gaineko balorazioa.

07

Nola ezarri tresna hau toki-erakunde batean?

Aurretiazko zer baldintza bete behar dira GEE behar bezala ezartzeko?

Berdintasun-politiketan zer ibilbide egin duten aintzat hartu gabe, toki-administrazio guztiek dute ematen dituzten arauen eta administrazio-egintzen gaineko GEE egiteko betebeharra, baina badira aurretiazko zenbait baldintza, GEEren ezarpen-prozesua behar bezala betetzen laguntzen dutenak. Baldintza horietako batzuk dira, esaterako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko teknikari gaituak dituen berdintasun-unitate bat izatea, urteroko aurrekontu-sail bat izatea berdintasun-politikak bultzatzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza edo programaren bat izatea.

Aurretiazko baldintza horiez gain, *4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak*, arautzen duen betebeharra betetzeko funtsezko faktore da **GEE egiteko konpromisoa eta betebeharra adierazten duen erabakia** hartua izatea toki-erakundeak, bai eta, horrekin batera, haiek egiteko irizpideak zehaztuak izatea ere.

Egoera jakin batzuetan, nahikoa izango da berdintasunaren alorrean indarrean dauden barne-arauak egokitzea. Esaterako, berdintasunerako ordenantzak dituzten toki-administrazioek arau horren artikulua alda ditzakete edo hari xedapen gehigarriak erantsi, GEE egiteko betebeharra arautzeko. Beste administrazio batzuek, berriz, gai-alor horretarako arau berariazkoak eman beharrean izan daitezke.

Hona hemen konpromiso-eredu bat, toki-erakundeentzat prestatua.

I. eranskina


29 ORR.

08

Nola egin GEE bat

Arau edo administrazio-egintza baten GEE egiteko ibilbide-proposamena:

Arau edo administrazio-egintza baten GEE egiteko proposatzen den ibilbidea azalduko dugu atal honetan.



1. URRATSA: EGIN BEHAR AL DA ARAU EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZA HONEN GEE?

Araua edo administrazio-egintza emateko prozesuari ekin ondoren, hura bultzatu duen organoak berdintasun-unitateari deitu behar dio, lantzekoa den arauaren edo administrazio-egintzaren GEE egin behar den ala 5. puntuaren aurrekustean eta arautzen diren salbuespenen bat egingo den erabakitzeko.

Erabaki hori hartzen laguntzeko, elkarren ondotik erantzun daitezke **“Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharretik salbuetsita izatearen justifikazioa”** tresnan adierazten diren galderak, lagungarri baitira analisia egiteko.

Arau bat emateko proiektua baldin bada, honako galdera hauei erantzun behar zaie:

- A** Arauak, funtsean, antolamendu-izaera al du?
- B** Indarrean diren arauak bat egiteko araua al da?
- C** Indarrean den arauaren bat aldatzeko araua al da?
- D** Agerikoa al da arauak ez duela genero-eragin adierazgarririk?

Baiezkoa erantzuten baldin bazaio **lehen hiru galderetakoren** bati, ez da GEErik egin beharrik izango.

Laugarren eta azken galdera, genero-eragin adierazgarririk ote duen galdetzen duena, funtsezkoa da hemen. Izan ere, 5. puntuaren adierazi den moduan, arau guztiak dute, oro har, genero-eragina. Horrenbestez, genero-eragin adierazgarririk ez duela justifikatu behar da (eta ez, ondorioz, genero-eragina duenik).

Galdera horri erantzuteko, beste bi galdera hauek erantzutea komeni da:

1. Eragiten al dio arauak, zuzenean edo zeharka, pertsonei?
2. Eragiten al dio arauak, zuzenean edo zeharka,

- emakumeek eta gizonen baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko duten sarbideari;
- erabakiak hartzeko guneetan duten parte-hartzeari; edo,
- genero-desberdintasunen sorreran eta iraupenean eragiten duten gizarte-arau eta balioei?

Bi galdera horietakoren baten erantzuna ezezkoa baldin bada, arauak ez du genero-eragin adierazgarririk izango.

Administrazio-egintza bat eman behar baldin bada, zer proiektu mota den begiratu beharko da betebeharra edo salbuespena duen erabakitzeko; izan ere, lehen adierazi dugun moduan, enplegu publiko eskaintzen deialdiek eta lekualdatze-lehiaketek soilik egin behar dute GEE.

Salbuespenaren arrazoia edo kausa guztien justifikazioa adierazi behar da **salbuespena justifikatzeko txostenean**, eta arauaren edo administrazio-egintzaren espedientearen jaso behar da txosten hori.

Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharretik salbuetsita izatearen justifikazioa.

II. eranskina

34 ORR.

2. URRATSA: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN EBALUAZIOA

Salbuespenik ez dela erabakitzen baldin bada aurreko urratsean, berdintasun-unitatearen beste lan-saio bat deituko du organo bultzatzaileak, ematekoa den arauaren edo administrazio-egintzaren alderdi nagusiak zehaztu ondoren.

Arau-proiektuak, planteatuta dagoen moduan, zer genero-eragin duen aztertzea izango da lansaio horren helburua; horrez gainera, eta beharrezkoa baldin bada, zuzenketa-neurriak ezar ditzake, eragin kaltegarriak saihesteko, edo bestelako neurriak ezar ditzake, eragin onuragarriak indartzeko.

2.1. URRATSA

ERAGINAREN EBALUAZIOA

Elkarren ondoko bi urrats eman behar dira eraginaren ebaluazioa egiteko. Lehenik eta behin, **abiapuntuko egoera aztertu behar da**, hau da, zehaztu behar da emakumeak eta gizonak zer egoeran dauden arauak edo egintzak araututako esparruan, eta, halakorik baldin bada, identifikatu egingo dira desberdintasunak; horren ondoren, ondorioztatzen denaren arabera, arauaren edo administrazio-egintzaren **emaitza-**

aurreikuspena egingo da, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizten ote dituen eta haien arteko berdintasuna sustatzen ote duen zehazteko.

Urrats hau ematen laguntzeko, 5 puntutan banatu da abiapuntuko egoeraren analisia eta eragin-aurreikuspena:

- 1 **Emakumeen eta gizonen presentzia.**
- 2 **Erabakiak hartzen parte hartzea.**
- 3 **Baliabideetarako sarbidea**
- 4 **Gizarte-arauak eta balioak.**
- 5 **Berdintasun-arloko araudia.**



GEE tresna erabilgarria eta eraginkorra izango baldin bada, funtsezkoa da egoeraren azterketa osoa eta behar bezala oinarritua egitea. Azterketa egiteko, ezinbestekoa da:

- Jakitea emakumeek eta gizonek abiapuntuko zer egoera duten arauaren edo administrazio-egintzaren aplikazio-eremuan. Informazioaren aurretiazko bilaketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin behar da.
- Genero-desberdintasunak nola sortzen diren ulertzea.
- Emakumeen eta gizonen artean dauden beharrian eta interes desberdinak aintzat hartzea, bestelako azterketa-aldagaiak erabilia: adina, ezintasunak, sexu-orientazioa eta -identitatea, etab.

1 Emakumeen eta gizonen presentzia

1. EGOERAREN ANALISIA EDO AZTERKETA

Egoeraren analisia egiteko, emakumeen eta gizonen banaketari buruzko datuak eta estatistikak bildu behar dira arauaren edo administrazio-egintzaren aplikazio-eremuan, eta emakumeen eta gizonen artean izan daitezkeen desberdintasunak aztertu behar dira. Emakumeen eta gizonen arteko dibertsitateari erreparatuko zaio, eta, halakorik baldin bada, diskriminazio anitzeko egoerak eta zehar-faktore giltzarriak identifikatuko dira.

2. ERAGINAREN BALORAZIOA

Abiapuntuko egoera horri behatzean, bigarren aztertu behar den alderdia da ea ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak, une horretan egituratuta dagoen moduan, laguntzarik emango ote duen emakumeen eta gizonen presentzian hauteman diren desberdintasunak murrizteko.



ADIBIDEA

Hiri-garraio publikoa arautu nahi baldin badu proiektuak, lehenik aztertuko du emakumeen eta gizonen zer banaketa dagoen zerbitzuaren erabiltzaileen artean eta zerbitzua ematen duten langileen artean, hau da, baliabide publikoa kudeatzen duen udaleko langileen artean eta zerbitzuaren emakidaduna den enpresako langileen artean, eta bereziki aztertuko du emakumeen eta gizonen arteko zer banaketa dagoen gidarien artean.

2 Erabakiak hartzen parte hartzea

1. EGOERAREN ANALISIA EDO AZTERKETA

Abiapuntuko egoera identifikatzeko, aztertu behar da zer-nolako partaidetza duten emakumeek eta gizonen arauak egiteko eta betetzeko prozesuan, eta arauak edo egintzak arautu nahi duen esparruan hartzen diren erabakietan.

2. ERAGINAREN BALORAZIOA

Abiapuntuko egoera identifikatu edo zehaztu ondoren, aztertuko da, bigarrenik, ea ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak, une horretan egituratuta dagoen moduan, emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua aurreikusten ote duen edo, gutxienik, eremuan duen presentziaren antzeko ordezkari itza izango dutela aurreikusten ote duen.



ADIBIDEA

Proiektuak adineko pertsonen egoitzako araudia ezartzeko asmoa baldin badu, aztertu behar da proiektu horrek emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua aurreikusten duen erabakitze-postu eta -organoetan: egoitzako zuzendaritzan, zuzendaritza-batzordean, familien batzordean...

3 Baliabideetarako sarbidea

1. EGOERAREN ANALISIA EDO AZTERKETA

Une honetan, aztertu behar da **funtssezko baliabideek** (besteak beste, denborak, espazioak, diruak eta baliabide ekonomikoek, enpleguak, hezkuntzak eta informazioak, ugalketa-lanak, etxebizitzak, osasunak, garraioak eta aisiak) **zer-nolako banaketa duten** emakumeen eta gizonen artean proiektuaren aplikazio-eremuan. Azterketa hori egitean, aintzat hartu behar da nork egiten dituen egitekoak, nork duen baliabideetarako sarbidea, zer alde edo diferentzia dauden eta zergatik, etab.

2. ERAGINAREN BALORAZIOA

Abiapuntuko egoera horri behatzean, bigarren aztertu behar den alderdia da ea ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak, une horretan egituratuta dagoen moduan, laguntzarik emango ote duen emakumeen eta gizonen baliabideetarako sarbidean hauteman diren desberdintasunak murrizteko.



ADIBIDEA

Hiri-garraio publikoa arautu nahi baldin badu proiektuak, aztertuko du *zer sarbide duten udalerriko emakumeek eta gizonen baliabide giltzarri edo funtssezkoetara, bereziki garraio pribatura (nork dituen, nagusiki, ibilgailu pribatuak eskura); aztertuko du zaintza-lanak nola banatzen diren emakumeen eta gizonen artean, eta zehaztuko du nork egiten dituen bidaia gehiago zaintza-lanak egiteko eta nork egiten dituen bidaia horiek adingabekoekin edo mendeko adinekoekin; aztertuko du gizonen eta emakumeen enplegurako zer sarbide duten, eta enpleguak zer sektore eta lekutan izaten dituzten, horrek eragina baitu egiten dituzten bidaia edo joan-etorrietan, etab. Horren guztiaren ondorioz, posible izan behar du aztertzea ea proiektuak berdintasunez betetzen ote dituen emakumeen eta gizonen beharrian eta interes berariazkoak eta bizitzaren jasagarritasunerako jarduerak sustatzen ote dituen.*

4 Gizarte-arauak eta balioak

1. EGOERAREN ANALISIA	2. ERAGINAREN BALORAZIOA
<p>Analisiaren atal honetan, zehaztu behar da gizarte-arauak eta balioak zer eragin duten honako hauen gainean:</p> <ul style="list-style-type: none">• ezarritako rol tradizionalen gainean.• sexuaren araberako lan-banaketaren gainean.• emakumeen eta gizonen jarrera eta jokabideen gainean.• gizonen eta emakumeen edo ezaugarri maskulino eta femeninoen ematen zaien balio desberdinen gainean.	<p>Abiapuntuko egoera zehaztu ondoren, aztertu behar da arauak edo administrazio-egintzak planteatzen dituen helburuak eta neurriak lagungarri izango ote diren gizarteak emakumeekiko edo gizonekiko lotzen dituen gizarte-arauak edota balioak aldatu edo gainditzeko.</p>



ADIBIDEA

Publizitate-panelen ezarpena arautzeko ordenantza bat baldin bada proiektua, aztertu behar da ea arautzen duen publizitate-edukiak ez direla sexistak izango, eta emakumeen eta gizonen irudi estereotipatua gainditu behar dutela.

5 Berdintasun-arloko araudia

1. EGOERAREN ANALISIA EDO AZTERKETA	2. ERAGINAREN BALORAZIOA
<p>Identifikatu behar da arauak eta bestelako tresna juridikoak (esaterako, planek) zer agindu juridiko ezarri dituzten, proiektuaren aplikazio-eremuan, diskriminazioa saihestu eta berdintasuna sustatzeko.</p>	<p>Ziurtatu behar da arau-proiektuak bete egiten dituela agindu horiek, eta alderdi horiek hobetzea arautzen ote duen begiratuko da.</p>



ADIBIDEA

Udalerriko *Gazteriarako Aholku Kontseiluaren Araudia* onartzea baldin bada proiektuaren asmoa, aztertu behar da ea emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua arautzen ote duen Aholku Kontseiluan, eta ondorioz, bete egiten ote dituen *otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak*, eta udalerriko Berdintasun Planak agintzen dituztenak.

2.2. URRATSA

HOBKUNTZAK

Azterketa edo analisi hori egin ondoren, ondorioztatzen baldin bada arau-proiektu horrek, une horretan idatzita dagoen moduan, kalte egingo diola berdintasunari, hau da, iraunarazi edo handitu egingo dituela egun dauden “genero-arrailak”, hobekuntzak egin behar zaizkio proiektu horri.

Hobekuntzak izan daitezke, besteak beste, **desberdintasunak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna osatzeko edo areagotzeko neurriak sustatzea, edo berdintasunerako helburuen eta neurrien efikazia osatzeko edo handitzeko neurriak hartzea, arauaren edo administrazio-egintzaren proiektuaren edukietan egin daitezkeen aldaketak alde batera utzita.**

Zenbait neurri mota proposatzen dira, zer hobekuntza barnera daitezkeen zehazten laguntzeko.

Desberdintasunak desagerrarazi eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak:

- **Genero-ikuspegia barneratzen laguntzeko neurriak**, hala nola emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoeren gaineko ezagutza handitzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa edo helburua ezartzea edo berdintasun-adierazpenak eta azalpenak lantzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea edo sustatzea, genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte hartzea indartzea, eta berdintasuna edukia edo onarpenerako, balorazioetarako eta egitarazitarako irizpidea izatea hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta prestakuntza-jardueretan.
- **Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzea** hautaketetarako epimahaletan, sarietarako epimahaletan, kontsulta- eta zuzendaritza-organoetan, etab.
- **Ekintza positiboko neurriak**, emakumeen aldekoak, gizonetzkoen berdintasunaren aldeko inplikazioa bilatzekoak, etab.
- **Itxura batean neutroak diren neurriak, baina genero-eragin onuragarriak izan dezaketenak** indarkeriaren biktimentzat, guraso bakarreko familientzat, mendeko pertsonen zaintzaileentzat eta bestelako pertsonentzat.
- **Diskriminazio-kausa bat baino gehiago pairatzen duten emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak**, baldin eta diskriminazio anitzak pairatzen baldin badituzte adinarengatik, errenta-mailarengatik, sexu-aukerarengatik, ezintasunen bat izateagatik, etnia jakin batekoak izateagatik, haien nazio-jatorriarengatik, landa-eremuren batean bizitzeagatik edo bestelako arrazoiren batengatik.
- **Debekatze edo zehapenak ezartzeko neurriak**, baldin eta sexuagatiko diskriminazioak egiten baldin badira, hizkuntzaren edo irudien erabilera sexista egiten baldin bada, etab.

Berdintasunerako helburuen eta neurrien efikazia osatzeko edo handitzeko neurriak, arauaren edo administrazio-egintzaren proiektuak duen edukia alde batera utzita:

- Hedapena indartzeko ekintzak.
- Jarraipena egiteko eta ebaluatzeako jarduerak.
- Estatistikak eta azterlan espezifikoak egitea.
- Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.
- Arauak, planak eta programak egokitzea eta prestatzea.
- Berdintasun-planak egitea.
- Egiturak eta zerbitzuak sortzea.

Zehaztu behar da zer neurri mota barneratu diren, zer neurri konkretu hartuko diren eta proiektuko zer artikulutan barneratu diren.

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIO-TXOSTENA

Eraginaren ebaluazioa eta barneratutako hobekuntzak **generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenean** jasoko dira, eta arauaren edo administrazio-egintzaren espedientean sartuko dira.

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

III. eranskina
37 ORR.

3. URRATSA: BERDINTASUN-ALORREKO ORGANOAREN OHARRAK ETA IRADOKIZUNAK

Litekeena da, organo sustatzailearen eta berdintasun-unitatearen baterako lanaren ondorioz, gerora berdintasunaren esparruan lan egiteko ildoak sortzea.

Gerta daiteke, era berean, beste neurri batzuk identifikatzea, eman asmo den arauan edo administrazio-egintzan barnera ezin daitezkeenak GEEa egiten denean, baina etorkizunean barneratzeko modukoak izan daitezkeenak.

Horrelakorik gertatzen baldin bada, oharpenen eta/edo iradokizunen agiri bat egin dezake berdintasuneko lantalde teknikoak.

TRESNA

Ibilbide horren jarraipena errazteko eta txostenak egiteko tresna bat prestatu da.

Emakunderen web-orrian deskarga daiteke tresna hori, baita EUDELen web-orrian ere.

09

Baliabideak


“Emakume eta gizonen arteko berdintasuna” [webgunea](#). Eustat

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak.
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

Emakunderen “Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak” [webgunea](#):

- Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua.
Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea 2013
- Material osagarriak, emakumeek eta gizonek sektore-esparru jakinetan duten egoera desberdinaren testuinguruaren berri ematen dutenak
- Alderdi juridikoak
- Glosarioa

Bideoak :



10

Eranskinak

I. eranskina:

Konpromiso-eredua

II. eranskina:

Tresna: “Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharretik salbuetsita izatearen justifikazioa”

III. eranskina:

Tresna: “Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa”

I. eranskina

Konpromiso/erabakiaren eredia, arauen eta administrazio-egintzen generoaren araberako aurretiazko ebaluazioak egiteko irizpideak onartu eta horiek udalaren ohiko jardueran barneratzeko, desberdintasunak desagerrarazi eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

I. Gero eta gehiago erabiltzen da **Gobernantza** kontzeptua, botere publikoen eraginkortasuna, kalitatea eta jardun ona adierazteko, eta kontzeptu horren inguruan oinarritzen da agintari publikoen legitimotasuna. Zenbaitetan, «Gobernatzeko modu berria» edo «Gobernantza berria» ere esaten zaio.

Genero-ikuspegia txertatzea edo genero-mainstreaminga, nazioartean eta Europan gomendatzen den lan-estrategietako bat izateaz gain, printzipio orokor bat ere bada, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAEko botere publikoen jarduera zuzendu eta orientatu behar duena. Hori arautzen du, hain justu, *otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak*, 3.4 artikuluan.

3.4. artikulua. Genero-ikuspegia sartzea:

Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Administrazioaren jarduean genero-ikuspegia txertatzeak lagundu egiten du emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko gobernantza hobetzen, indartu egiten du botere publikoek berdintasunarekin duten konpromisoa, eta esku-hartze publikoa eraginkorragoa, efizienteagoa eta zuzenagoa izatea ahalbidetzen du.

Horregatik guztiagatik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VI. Planak** berdintasunaren aldeko gobernanzaren hobekuntza aldarrikatzen du bigarren kapituluan, eta zenbait neurri finkatzen ditu genero-ikuspegia barneratzeko egungo administrazio-jarduean. Neurri horiek bat egiten dute **otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak**⁽¹⁾ araututakoarekin.

(1) Toki-administrazioaren arau-esparruarekiko egokitzapena: berdintasunerako plana, berdintasunerako ordenantza.

II. Lehen adierazitako neurrietako bat dira generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak. **Generoaren araberako eragina aurrez ebaluatzea** 4/2005 Legeak aurreikusitako tresna bat da (18. artikulutik 22. artikulura arautzen du), eta bere helburua da arauetan edo administrazio-egintzetan proiektatutako jarduerak aztertzea eta horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak handituko edo murriztuko dituzten behatzea, administrazio-jardueran berdintasun-helburuak txertatzen laguntzeko.

Hausnarketa bat egin behar da—ex ante ebaluaketaren bidezkoa—arau edo administrazio-egintzak diseinatzeko prozesuan, aintzat hartzeko arauak edo egintzak zer-nolako eragina izango duen emakumeen eta gizonen egoeran. Analisi horri esker, neurri zuzentzaileak ezar daitezke, baldin eta berdintasunaren gaineko eragin kaltegarria antzematen bada, araua edo administrazio-egintza indarrean jarri aurretik. Era berean, arauak edo egintzak berdintasunaren gainean eragin onuragarria izango baldin badu, eragin hori indartzeko beste neurri batzuk hartzen laguntzen du aurretiazko ebaluazioak.

EAEko administrazio publikoek nahitaez betetzekoa dute. Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoak, hau arautzen du 18.1. artikuluan: «*Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteeek modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua*». Eta 19. artikulutik 22. artikulura **prozedura bat arautzen du, agindu hori betetzeko.**

Hori horrela, honako hau da hartutako

ERABAKIA

<<**Lehena.**- Zenbait jarraibide onartzen dira, adierazteko, batetik, nola egingo diren generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak eta nola barneratuko diren desberdintasunak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak, eta azaltzeko, bestetik, zer arau eta administrazio-egintzetan ez den izango aurretiazko ebaluazio hori egiteko betebeharririk. Jarraibide horiek eta bakoitzari dagozkion eranskinak erabaki honi atxikita daude, _____ko Udalak, bere erakunde autonomoek eta berari atxikitako edo lotutako entitate publikoek bete ditzaten.

Bigarrena.— Berdintasun Unitateak jarraibide hauek betetzeko material lagungarria emango die erabaki hau bete beharra duten organoei eta gainerako erakunde eta entitateei>>

ERABAKIAREN ERANSKINA

GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

1. KONTZEPTUA

Tresna bat da generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa, eta bere egitekoa da berdintasun-helburuak txertatzea araugintzan eta administrazio-jardueran. Egiteko hori betetzeko, arauak edo administrazio-egintzek aurreikusten dituzten jardueren analisisa egiten du, eta aztertzen du arau eta egintza horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak areagotu edo murriztu egiten ote dituzten.

2. HELBURUA

Izaera orokorrez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin behar zaie toki-erakundeen arau-proiektuei (ordenantzei, araudiei, aurrekontuei eta hirigintzak-arauei).

Hala ere, salbuetsirik izango dira honako arau-proiektu hauek:

- A** Funtsean antolaketa-izaera duten arau-proiektuak.
Zehazki:
 - Egitura organiko eta funtzionaleko dekretuak.
 - Kontsulta, aholkularitza, ikerketa eta koordinazioko organoen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten proiektuak, baldin eta administrazio publikoetako langileek soilik osatutakoak baldin badira.
 - Administrazio-erregistroak sortzeko edo antolatzeko proiektuak.
- B** Indarrean dauden arauak bat egitea helburu duten arau-proiektuak.
- C** Indarrean dauden beste arau batzuk aldatzea helburu duten arau-proiektuak, baldin eta aldaketa horrek emakumeen eta gizonen egoeran funtsezko eraginik ez badute.
- D** Emakumeen eta gizonen egoerarekiko duten eragina deuseza edo oso txikia izanagatik, genero-ikuspegitik eragin adierazgarririk ez dutenak, eta, beti, herritarren eskubide eta interes legitimoak erasaten ez dituzten proiektuak.

Administrazio-egintzen proposamenei dagokienez, **enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketeki buruzko proposamenei** soilik egin behar zaie generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Berariaz, bazterturik daude honako proposamen hauek:

- Planak, programak edo politika publikoak adierazteko beste tresna batzuk.
- Laguntza publikoak (diru-laguntzak, bekak, sariak...) emateko deialdiak, irauteko asmorik ez dutenak eta berez agortzen direnak denbora-epe jakin batean.
- Zerbitzu-eginkizunak eta lanpostuen balorazio-prozesuak ebazteko egintzak

Salbuetsirik baldin badago proiekturen bat, araua egiteko eskumena duen organoak **txosten bat egin behar du, salbuespenaren arrazoia justifikatzeko**, jarraibide hauen II. eranskinean adierazten den moduan.

3. EGITEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA

Organo bultzatzailea da generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko administrazio-organo eskuduna, hau da, arauaren edo administrazio-egintzaren proposamena emateko eskumena duen organoa.

Berdintasun-unitatearen laguntza izango du ebaluazioa egiteko; hala, berdintasunaren alorreko jakintza berariazkoak ekarriko ditu unitateak arautu nahi den gai-esparrura, eta zenbait tresna berariazko jarriko ditu eskura, hala nola genero-analisia eta genero garrantziaren edo genero-eraginaren gaineko balorazioa.

4. FASEAK

Bi fase ditu generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioak:

4.1. Eraginaren ebaluazioa: egoeraren analisia eta genero-eraginaren balorazioa:

Fase honetan, adierazi behar da, bereizita, zer gizarte-egoera bizi duten emakumeek eta gizonen arauaren eraginpeko eremuan; hartara, lehendik egon daitezkeen sexuagatiko desorekak identifikatuko dira, eta, horren arabera, ebaluatuko da arauak eragin positiboa edo negatiboa izango ote duen haren eraginpeko gizarte-testuinguruan antzemandako desorekak murrizteko edo desagerrarazteko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko.

Irizpide hauek erabiliko dira hori guztia egiteko:

- Emakumeek eta gizonen presentzia arau-proposamenaren onuradun izan daitezkeen pertsonen artean, onura baliokideak lortzeko hautematen diren oztopoak eta sektoreak baliabideetarako ematen duten sarbidea, sektorean desberdintasunak sortzeko eragin nabarmena izan dezaketen aldetik.
- Emakumeen eta gizonen parte hartzea erabakiak hartzeko guneeetan.
- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen sorreran eta iraupenean eragiten duten gizarte-arauak eta balioak.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauen betetze-maila.

Gizonen eta emakumeen egoera aztertzeko, informazio-bilaketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egin behar da alde aurretik. Informazioa biltzeko, proiektuak xede duen eremu edo sektoreari buruzko informazio-iturri hauek erabili behar dira batez ere: sexuaren arabera banakatutako estatistika ofizialak; genero-harremani buruzko azterlanak, ikerketak eta iritzi-inkestak; eta arau juridikoak eta bestelako agiriak, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eskubideak, aginduak eta helburuak adierazten dituztenak.

4.2. Hobekuntzak

Aurreko fasean ondorioztatzen baldin bada arau-proiektu horrek, une horretan idatzita dagoen moduan, kalte egingo diola berdintasunari, hau da, iraunarazi edo handitu egingo dituela egun dauden genero-arailak, hobekuntzak egin behar zaizkio proiektu horri.

Hobekuntzak izan daitezke, besteak beste, desberdintasunak desagerrarazi eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna osatzeko edo areagotzeko neurriak sustatzea, edo berdintasunerako helburuen eta neurrien efikazia osatzeko edo handitzeko neurriak hartzea, arauaren edo administrazio-egintzaren proiektuan egin daitezkeen aldaketak alde batera utzita.

5. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIO-TXOSTENA

Eraginaren ebaluazioa eta barneratutako hobekuntzak **generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazio txostenean** jasoko dira, eta arauaren edo administrazio-egintzaren dokumentazioko agiriak izango dira.

6. OHARPENEN ETA IRADOKIZUNEN AGIRIA

Egoera jakin batzuetan, oharpenen eta/edo iradokizunen agiri bat egin dezake berdintasun-alorreko lantalde teknikoak, eta araua edo administrazio-egintza egiteko dokumentazioari erantsiko zaio.

7. EGITEKO PROZEDURA

- 1** Komeni da, lehenetsunez, ematekoa den arauaren eta/edo egintzaren funtsezko alderdiak (xedea, egitekoa, interbentzio-eremua, helburu eta neurri nagusiak, etab.) aurreratuta izan bai, baina testua zirriborroan dagoenean ekitea generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari, eta hura osatzeko, edo beharrezkoa baldin bada, aldatzeko bidea urratu behar da, araua edo egintza egiteko prozesuak aurrera egin ahala.
- 2** Tokiko arau bat izanez gero, informazio edo entzunaldi publikoen fasea hasi aurretik eta nahitaezko txostenak eta irizpenak egin aurretik idatzi behar da generoaren araberako eraginaren aurretiazko txostena.
- 3** Administrazio-egintza bat eman asmo baldin bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) arautzen dituen instrukzio-jardunbideak bete aurretik amaitu behar da generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

II. eranskina

Generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin beharretik salbuetsita izatearen justifikazioa

EREMU OBJEKTIBOA:

Izaera orokorrean, arau-proiektu guztien (ordenantzen, araudien, aurrekontuen eta hirigintza-arauen) GEE egin behar da.

Hala ere, salbuetsirik izango dira honako arau-proiektu hauek:

- A** Funtsean antolaketa-izaera duten arau-proiektuak.
- B** Indarrean dauden arauak bat egitea helburu duten arau-proiektuak.
- C** Indarrean diren arauak aldatzea helburu duten arau-proiektuak.
- D** Genero-ikuspegi adierazgarririk gabeko proiektuak.

Administrazio-egintzen proposamenei dagokienez, enplegu publikorako eskaintzen deialdiei eta lekualdatze-lehiaketei soilik egingo zaie GEE.

Zer tresna politiko mota eman asmo da?

- ARAUA
- ADMINISTRAZIO-EGINTZA

Araua baldin bada:

A Arauak, funtsean, antolamendu-izaera al du?

BAI

Justifikazioa:

- Egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa da.
- Kontsulta, aholkularitza, ikerketa eta koordinazioko organoen sorrerari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa da, eta administrazioko langileek osatutako organoak dira.
- Administrazioko erregistroak sortzeari edo antolatzeari buruzkoa da.
- Besterik: _____

EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR.

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Eraitza: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

→ **EZ** Jarraitu

B Indarrean diren arauak bat egiteko araua al da?

BAI

Justifikazioa:

EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR.

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Emaitza: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

EZ → Jarraitu

C C. Indarrean den arauen bat aldatzeko araua al da?

BAI → Aldaketa handia ekarriko al dio emakumeen eta gizonen egoerari?

EZ → Justifikazioa:

EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR.

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Emaitza: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

BAI → Jarraitu

EZ → Jarraitu

D Agerikoa al da arauak ez duela genero-eragin adierazgarririk?

Abiapuntua: Oro har, arau guztiak dira adierazgarriak genero-ikuspegitik, hau da, arau guztiak izan dezakete eragin desberdina emakumeengan eta gizonengan, eragin hori aurretik aurreikusi gabea eta horretarako borondaterik gabe emana izan daitezkeen arren.

1 Eragiten al die arauak, zuzenean edo zeharka, pertsoneri?

EZ → Justifikazioa:

ARAUAK EZ DU GARRANTZIRIK GENEROAREN IKUSPEGITIK. EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Emaitza: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

BAI → Jarraitu

2 Eragiten al die arauak, zuzenean edo zeharka,

- emakumeek eta gizonek baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko duten sarbideari;
- erabakiak hartzeko guneetan duten parte-hartzeari; edo,
- genero-desberdintasunen sorreran eta iraupenean eragiten duten gizarte-arau eta balioei?

EZ → Justifikazioa:

ARAUAK EZ DU GARRANTZIRIK GENEROAREN IKUSPEGITIK. EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR.

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonezkoen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Emaita: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

BAI → JARRAITU GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOAREN PROZESUA

Administrazio-egintza baldin bada:

- Enplegu-eskaintza publikoko eskaintza bat edo lekualdatze-lehiaketa bat al da?

EZ → **EZ DA GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN ALDEZ AURREKO EBALUAZIOA EGIN BEHAR.**

Prozesua ez da hemen amaitzen; izan ere, testuak hizkuntzaren erabilera sexista egiten ote den eta beste neurri batzuk har daitezkeen aztertu behar da: datuak sexuaren arabera banakatzea; emakumeen eta gizonezkoen partaidetza orekatua izatea kontsulta-organoetan, epaimahaietan eta antzekoetan; emakumeen partaidetza sustatzea partaidetza-prozesuetan; etab.

Emaita: EBALUAZIOA EGITETIK SALBUETSITA DAGOELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTENA

BAI → JARRAITU GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOAREN PROZESUA

III. eranskina

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa

1. ERAGINAREN EBALUAZIOA				
BALIZKO DIFERENTZIAK ALDERDI HAUETAN...	1.1. EGOERAREN ANALISIA/ ABIAPUNTUKO EGOERA	1.2. ERAGINAREN BALORAZIOA		
		EMAITZAREN AURREIKUSPENA	BAI	EZ
EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA	<p>Emakumeen eta gizonen artean izan daitezkeen desberdintasunak aztertu behar dira, bai proiektuaren eremuan duten presentziari erreparatuta.</p> <p>Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datuak eta estatistikak bildu behar dira: emakumeak eta gizonak zer lekutan izaten diren eta zer egiten duten. • Desberdintasunak identifikatu eta deskribatu behar dira. • Arretaz behatu behar zaie diskriminazio anizkoitzari eta zehar-faktoreei. 	<p>Aurreikuspenen arabera, ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak murriztuko al ditu emakumeen eta gizonen presentzian?</p>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<p>Deskribapena:</p>	<p>Azalpena:</p>		
PARTE-HARTZEA ERABAKIETAN	<p>Emakumeek eta gizonek duten parte-hartzea aztertu behar da, bai eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeak ere, honako alderdi hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • araua egiteko eta betetzeko prozesuan. • arauak arautu asmo duen eremuan hartzen diren erabakietan. 	<p>Erabakiak hartzeko garaian, gizonen eta emakumeen ordezkariak orekatua edo, gutxienez, eraginpeko eremuan duten ordezkarien antzeko ordezkariak aurreikusten al du ematekoa den arauak edo administrazio-egintzak?</p>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	<p>Deskribapena:</p>	<p>Azalpena:</p>		

1. ERAGINAREN EBALUAZIOA				
BALIZKO DIFERENTZIAK ALDERDI HAUETAN...	1.1. EGOERAREN ANALISIA/ ABIAPUNTUKO EGOERA	1.2. ERAGINAREN BALORAZIOA		
		EMAITZAREN AURREIKUSPENA	BAI	EZ
BALIABIDEETA- RAKO SARRERA (denbora, lekua, dirua eta baliabide ekonomikoak, enplegua, hezkuntza eta informazioa, erreproduktzio-lana, etxebizitza, osasuna, garraiobidea, aisia...)	Baliabideen banaketa emakumeen eta gizonen artean: • Nork egiten duen zer. • Nork duen baliabideetarako sarbidea eta nork ez. • Zer desberdintasun dauden emakumeen eta gizonen artean eta zergatiak. • Zein diren funtsezko faktoreak desberdintasun horietan.	Aurreikusten al da emateko den arauak edo administrazio-egintzak urrituko edo desagerraraziko dituela baliabideetarako sarbidean dauden desorekak?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Deskribapena:	Azalpena:		
GIZARTE- ARAUAK ETA BALIOAK	Aztertu gizarte-arauak eta balioek honako hauen gainean duten eragina: • ezarritako rol tradizionalen gainean. • sexuaren araberako lan-banaketaren gainean. • emakumeen eta gizonen jarrera eta jokabideen gainean. • gizonen eta emakumeen edo ezaugarri maskulino eta femeninoei ematen zaien balio desberdinen gainean.	Aurreikusten al da etorkizuneko arauan edo administrazio-egintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumeen eta gizonen egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gainditzeko edo aldatzeko?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Deskribapena:	Azalpena:		

1. ERAGINAREN EBALUAZIOA				
BERDINTASUN- HELBURUAK	1.1. EGOERAREN ANALISIA/ ABIAPUNTUKO EGOERA	1.2. ERAGINAREN BALORAZIOA		
		EMAITZAREN AURREIKUSPENA	BAI	EZ
BERDINTASUN ARLOKO ARAUDIA	Arauetan eta beste tresna juridiko batzuetan (esaterako, planetan) adierazten diren aginduak, xede hau dutenak beren eraginpeko eremuan: • Berdintasuna sustatzea. • Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta biktimak laguntzea eta haiek babestea.	Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	Deskribapena:	Azalpena:		

2. HOBEKUNTZAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA DESBERDINTASUNAK DESAGERRAZTEKO NEURRIAK

NEURRI MOTA	ZER ARTIKULUTAN DAUDEN ETA DESKRIBAPENA
<input type="checkbox"/> Genero-ikuspegia barneratu dadin sustatzeko neurriak	<input type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldean ezagutza hobetzen da
	<input type="checkbox"/> emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da printzipio moduan, helburu moduan edo adierazpen nahiz azalpen gisa.
	<input type="checkbox"/> hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten edo sustatzen da.
	<input type="checkbox"/> genero-gaiei buruzko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza sustatzen da
	<input type="checkbox"/> Edukia edo onartzeko, baloratzeko edo egikaritzeko irizpidea da berdintasuna hautatze-prozesuetan, laguntzak eta hitzarmenak egiteko prozesuetan, prestakuntza-jardueretan, etab.
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____
<input type="checkbox"/> Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko neurriak	<input type="checkbox"/> hautatze-epaimahaietan
	<input type="checkbox"/> sariak emateko epaimahaietan
	<input type="checkbox"/> kontsulta-organoetan
	<input type="checkbox"/> zuzendaritza-organoetan
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____

2. HOBEKUNTZAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA DESBERDINTASUNAK DESAGERRAZTEKO NEURRIAK

NEURRI MOTA	ZER ARTIKULUTAN DAUDEN ETA DESKRIBAPENA
<input type="checkbox"/> Ekintza positiboko neurriak	<input type="checkbox"/> emakumeentzat <input type="checkbox"/> gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko <input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____
<input type="checkbox"/> Itxuraz neutroak diren neurriak, baina generoaren araberako eragin onuragarria izan dezaketenak	<input type="checkbox"/> indarkeriaren biktimeentzat <input type="checkbox"/> guraso bakarreko familientzat <input type="checkbox"/> mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat. <input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____
<input type="checkbox"/> Emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko neurriak, baldin eta diskriminazio anizkoitza pairatzen baldin badute	<input type="checkbox"/> adinarengatik <input type="checkbox"/> errenta-mailarengatik <input type="checkbox"/> sexu-aukerarengatik <input type="checkbox"/> desgaitasunak izateagatik <input type="checkbox"/> etnia jakin batekoa izateagatik <input type="checkbox"/> nazio-jatorriagatik <input type="checkbox"/> landa-eremuan bizitzeagatik <input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____

2. HOBEKUNTZAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA DESBERDINTASUNAK DESAGERRAZTEKO NEURRIAK

NEURRI MOTA	ZER ARTIKULUTAN DAUDEN ETA DESKRIBAPENA
<input type="checkbox"/> Debeku- eta zehapen-neurriak	<input type="checkbox"/> sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik
	<input type="checkbox"/> hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik
	<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____

2.2. BERDINTASUNERAKO HELBURUEN ETA NEURRIEN EFIKAZIA OSATZEKO EDO HANDITZEKO NEURRIAK, ARAUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZAREN PROIEKTUAREN EDUKIAN EGIN DAITEZKEENAK ALDE BATERA UTZITA

NEURRI MOTA	DESKRIBAPENA
<input type="checkbox"/> hedapena indartzeko ekintzak	
<input type="checkbox"/> jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarduerak	
<input type="checkbox"/> estatistikak egitea eta azterlan espezifikoak egitea	
<input type="checkbox"/> informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak	
<input type="checkbox"/> arauak, planak edo programak egokitzea edo prestatzea	
<input type="checkbox"/> berdintasunerako planak egitea	
<input type="checkbox"/> egiturak eta zerbitzuak sortzea	
<input type="checkbox"/> beste batzuk, zehaztu _____ _____	

EMAITZA: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIO-TXOSTENA

Organo bultzatzaileko arduradunaren sinadura

3. OHARRAK ETA/EDO IRADOKIZUNAK

Izan al da arauaren edo administrazio-egintzaren edukian sartu ezin izan den neuririk?

Organo bultzatzailearekin lanean jardutean, identifikatu al da etorkizunean berdintasunaren eremuan landu beharreko ildorik?

EMAITZA: OHARPENEN ETA/EDO IRADOKIZUNEN AGIRIA:

Berdintasun teknikariaren sinadura:

